

Lehendakariak inauguratu du Mexikon, Mondragon Nazioarteko Hezkuntza-k (MEI) Queretaron duen campus berria: la Universidad Mondragon-UCO

2014/10/28

Iñigo Urkullu lehendakariak, Mondragon Unibertsitateko errektorea den losu Zabalarekin batera inauguratu du gaur Queretaron, Mondragon Nazioarteko Hezkuntza-k Mexikon duen campus berria: Universidad Mondragon-UCO. Beraiekin izan dira baita ere, Dario Malpica (Universidad Mondragon-UCO kontseiluko Presidentea), Fernando de la Isla (Queretaroko estatuko hezkuntza idazkaria), Enrique Vega (El Marqués-eko lehendakari munizipala), Gastón Jury (Prohabilitación taldeko zuzendari orokorra) eta Arturo Alvarado (Universidad Mondragon-UCOko errektorea)

Gaur egun, unibertsitateak 500 ikasle inguru ditu eta 2019 urterako, 4000 ikasle izatea aurreikusten da. Ikasle hauek, dozenatik gorako lizentziatura eta ingeniari-titulu ikasteko aukera dute, Zuzenbidea, Nazioarteko Negozioak, Administrazioa, Energia, Mekatronika, Multimedia Diseinu Grafikoa eta Gastronomiaren alorretan. Hurrengo urteetan, informatikako ingeniari-titulu eta industria diseinua gehituko zaizkie aurrekoei.

Campusa, estrategikoki kokatuta dago hiriak dituen industrialdea garrantzitsuenen ondoan, Mondragon-UCO-ren apustua, ikasketak eta lana uztartzearen aldekoa bai da. Horrela, gazteei, esperientzia ematen dien ikasketak praktikokoak bermatzen ditu. Guzti honi gehitu behar zaio, akademikoki aitortzen zaion kalitatea, bere hezitzaileen izen ona eta azken teknologiez hornitutako instalazio modernoak.

Zehazki esanda, campus berriak, 36 ikasgela ditu, liburutegia, auditoria, ingeniari-titulu eta gastronomia arloetarako hainbat laborategi, kafetegia, jatetxea, aparkaleku handia, erizaintza eta kirol esparrua. Esparrua, gaitasun desberdinak dituzten pertsonentzako egokituta dago eta abiadura handiko internet-a du.

Universidad Contemporánea-k (UCO), 1998 abuztuan ireki zituen bere ateak lehenengo aldiz Queretaron (Mexiko), hasiera batetan erdi mailako ikasketak emanez eta ondoren bere eskaintza akademikoa zabalduz. Gainera, Mexikon, Bikaintasun Akademikoaren zigilua duten erakunde banakakoetako bat da.

2013 urtean, aliantza bat sinatu zuen UCO-k Mondragon Unibertsitatearekin, birmoldaketa prozesu bat aurrera eraman eta bere eskaintza akademikoa arlo teknikoko titulazioekin zabaltzeko asmotan, guztia Mondragon ereduan oinarrituta. Ondorioz, Mexiko unibertsitatea, Universidad Mondragon – UCO izena hartu zuen eta MEI (Mondragon Nazioarteko Hezkuntza) sarean integratuta geratu zen.

Mondragon Nazioarteko Hezkuntza- MEI

Mondragon Nazioarteko Hezkuntza (MEI) 2009 urtean, Mondragon Unibertsitateak eta Alecop Kooperatibak sortutako elkarte da. Ondoren, Mondragon Korporazioa gehitu zitzaion.

MEIren helburu nagusia, munduan zehar, goi mailako hezkuntza erakundeak promozionatu eta kudeatzea da, bai erakunde berriak sortuz, bai dagoeneko daudenetan parte hartuz. "MONDRAGON zigilua" bateratze elementu bezala hartuta, aliantzan lan egiten da nazioarteko sare bat sortzen eta eratzen joateko, betiere, sinergiak aprobetxatu eta bakoitzak bere goi mailako hezkuntza sistema indartzeko asmoarekin.

Orain bost urte abian jarri zenetik, MEI hiru herrialdetan dago jada eta 6 goi mailako hezkuntza instituziotako kudeaketan parte hartzen du tokiko partner-ekin batera: bi unibertsitate Kolonbia eta Mexikon eta 4 goi



mailako heziketa zentro Saudi Arabian.

Mondragon Unibertsitatearentzat, MEI proiektuaren errealitateak ikuspegi askotatik begiratur, aukera anitzeko eszenatoki bat ikusteko beta ematen du:

- Amankomunean egindako lanaren eta ikuspegi partekatuen sinergiak aprobetxatuz, unibertsitate eta goi mailako hezkuntza erakundeen sarearen sorrera. Honek, ezagutzaren nazioarteratzea eta globalizazioa baimentzen ditu eta baita ere, hezkuntzaren eta balidatutako esperientzien sozializazioaren bitartez, aberastasunaren sorrera.
- Gizartearekiko dugun konpromisoa gauzatzea, herrialde hartzaileen goi mailako hezkuntza sistemak indartuz. Hezkuntza, garapenaren motore belaza barneratuz, MONDRAGON esperientzian izan den bezala.
- Ikasleen formazio garapena indartu pertsonen mugikortasunaren, diploma bikoitzen, elkarlanean sortutako graduondoan, online eskaintzaren, eta abarren bitartez, harreman estruktural sendoak sortuz, unibertsitate-enpresa harremana era berean ulertuz.
- Elkar lankidetzak, herrialde inplikatuetakoa administrazio ororekin, estrategia guzti hauek gauzatzeko erreminta finantzarioak bilatzeko.
- MONDRAGON eta Euskadi markak indartu nazioarte mailan, hezkuntza eta goi mailako formazioaren esparruetan eta bere kasuan, Euskadiko enpresei laguntza eman beraien globalizazio estrategietan.

Giza baliabideei dagokienean, egun, MEI proiektuaren inguruan, 900 pertsona mugitzen dira dedikazio desberdinekin.

Mondragon Nazioarteko Hezkuntza-k, zabalkunde prozesu honetarako dauden aukerak aztertzen jarraitzen du beti ere, bere estrategiarekin bat egiten duten kondizioak betetzen badira, esaterako, Chilen, Perun, Ekuador-en...